

Bezeroarekiko harremanak

Bezeroarekin izango ditugun harreman motak, bi dira: automatizatua eta pertsonala.

Lehen esan dugun bezala, gure zerbitzua bi modutan eskainiko dugu. Hasieran, izango ditugun harremanen gehiengoa automatizatua izango da, ez dugulako diru asko inbertituko denda fisikoetan. Harreman automatizatua emango dugu interneten bitartez, webgune bat izango dugu non produktua ikusi ditzakete eta bertatik erosi, bertan ere ikusi ahal izango dituzte beste bezeroen iritsiak. Horretaz gain, sare sozialak izango ditugu publizitatea egiteko, bezeroen harreta deitzeko eta ezagunagoa izateko. Bertatik, gurekin hitz egin ahal izango dute edozein galdera edo arazo konpontzeko.

Bitartean, denda fisiko bat izango dugu, non emango dugu zerbitzu pertsonala edozein konponketa egiteko, erosteko eta fisikoan ikusi ahal izateko produktua. Dena ondo doala ikusterakoan, irabazitako dirua inbertituko dugu denda fisiko gehiago irekitzeko estatu mailan.